

# 19-11-18-Ikastorduak B12 (25-32 ikas unitateak)

## Film eta liburu artean

*Ikasbiletik hartua (BAGOAZ B1-7) eta IKAn moldatua*

Liburu edo film baten berri emango dugu. Liburu edo film bat gomendatuko diogu ikaskideari.

- HAIN eta HAINBESTE gustuak kontrajartzeko
- Istorioak deskribatzeko eta baloratzeko adjektiboak

### Literatura eta zinea

Liburuetan oinarritutako film edo serierik ezagutzen duzu? Zein hizkuntzatan?

.....

### Urduritasuna



Hiru bideo-pasarteak ikusi eta aukeratu zeinden bideo osoa azaltzen duen testua.

A.- Amaiak Rafael Gorri idazleari elkarrizketa egin behar dio, eta oso urduri dago galderak entseatzeko. Idazlea azaltzean, aurkezpenak egin eta berehala eman diote hasiera elkarrizketari. Lehenik, idazlea aurkeztu eta bost nobela idatzi dituela azaldu du kazetariak. Horietatik gustukoena "Haizearen seme-alabak" dela esan du idazleak. Nobela horren gainean film bat egiteko proposamena ere egin diotela gaineratu du. Ez daki film horretako idazlea bera izango den, baina zaila ikusten duela esan du, nobela bat idazten ari delako. Elkarrizketaren ondoren, gazte baten doktore-tesiari buruz hitzaldi bat eman behar duela azaldu du.

Gero, etapa bat bukatu eta berri bat hasi nahi duela esan du idazleak, lan autobiografikoak idatzi nahi dituela. Bere ustez, literatura iraultza egiteko bidea da. Horiek aipatuta, Amaiak bukatutzat eman du elkarrizketa idazlearen harridurarako, gauza asko baitzituen esateko. Hitzaldira joateko proposatuko dio Rafaellek Amaiari, baina honek lana duela esan eta argazkiak atera dituzte.

B.- Amaiak Rafael Gorri izeneko idazle bati, elkarrizketa egin behar dio, baina oso urduri dago eta galderak entseatzeko ari da. Idazlea azaltzean, harrera egin eta hasiera eman dio Amaiak elkarrizketari: lehendabizi, aurkezpena egin du, eta idatzi dituen bost eleberrietatik gustukoena zein den galdetu dio idazleari. Honek gogokoena "Haizearen seme-alabak" dela erantzun du. Nobela horren gainean film bat egiteko proposamena ere egin diotela esan du Rafaellek. Ez daki ea film horretan ikerketa egiten duen idazlea bera izango den, baina zaila izango dela esan du, nobela berri bat idazten ari baita. Ondoren, bere doktore-tesiari buruz gazte batek eman behar duen hitzaldira doala esan du.

Elkarrizketaren bukaeran, etapa berri bat hasi nahi duela jakinarazi du Rafaellek, hemendik aurrera lan autobiografikoak idatzi nahi dituela, uste duela baduela zerbait esateko munduari.


Segidan, Amaiak bukatutzat eman du elkarrizketa, baina honek esan dio gauza asko dituela oraindik esateko. Amaiak aitzakia bat jarri eta azkenean, argazkiak atera dizkie Xabik, hizketan ari diren bitartean.

## Zer nahiago duzu?

Azken boladan, zer liburu eta film ikusi duzun jakin nahi dugu. Liburu batean oinarrituta dagoen filmeren bat ikusi baduzu, bete koadroaren bi zutabeak eta idatzi nolako liburu/filma den. Bestela, bakarra bete.

### Hona hemen, laguntzeko, ideia batzuk:

- Film bikaina da, oso gomendagarria
- Liburu txarra da, benetan eskasa
- Entretenigarria da, baina pasarte batzuk astunak dira
- Liburu așpergarria da, baina filma oso hunkigarria
- Istorio alaia kontatzen du, gustagarria
- Gaia tristea da, eta sakona
- Luzea egin zitzaidan
- Laburra da, berehala bukatuko duzu
- Lan arina da, erraz irakurtzeko/ikusteko modukoa



Liburu:	Filma:

Zer gustatu zaizu gehien, liburu ala filma? Konparatu biak ezagutzen dituzun konparaketa mota guztiak erabiliz:



### KONTUAN HARTU

Kontrako gustua adierazteko, HAIN eta HAINBESTE konparazioak egiteko egiturak erabiltzen dira.

- *Filma asko gustatu zitzaidan, baina liburu ez da HAIN ona, liburu ez da HAIN entretenigarria.*
- *Ez zait HAINBESTE gustatu, ez dut HAINBESTE gozatu irakurtzen.*


Stephen Kingen The body liburu irakurri nuen, eta oso gomendagarria da, baina filma ez da hain ona, askoz ere aspergarriagoa da...



## Zintzoa, itsusia eta gaiztoa

Aukeratu gustuko duzun film bat edota liburu bat eta idatzi hari buruzko azalpen fitxa bat.

- Zein garaikoa den
- Historia nagusiaren trama (ez kontatu amaiera)
- Zer motatakoa den: dramatikoa, haurrentzakoa, beldurrezkoa...
- Protagonistari buruzko zertzeladak
- Aktore nagusiak
- Saririk irabazi ote zuen
- Non dagoen girotuta



## Liburuak baino hobeak diren 11 pelikula

Irakurri Gaizka Izagirren ARGIA astekarian idatzitako artikulua.

# Liburuak baino hobeak diren 11 pelikula

Oso urduri jartzen nauen esaldi tipiko bat: “pelikula? bah ... liburua askoz hobe da” Liburua gauza bat da eta filma beste bat. Hau da, ziur nago gehienetan liburuak eskaintzen digun aberastasun hori ezinezkoa dela pantaila baten aurrean islatzea, baina hori da, nire ustez, gakoa. Pelikulak liburuetan oinarritzen dira eta pertsonaiak garatzeko era, istorioak, kontakizunak ... beste kode edo modu batera kontatu behar dira. Ezinezkoa da liburu baten mamiaren 100% film batean agertzea, baina niri, pertsonalki, ez zait batere axola. Film bat ikustera noanean hori da, hain zuzen, egin nahi dudana, film bat ikusi. Berdin zait liburu batean oinarritu den, edo antzerki batean edo Amezketako Pemandoren eguneroko bizitzan.

Denok identifikatuko dugun egoera tipiko bat Game of thrones telesailarekin gertatzen da. Bada beti gure inguruan liburu guztiak irakurri dituen friki horietako bat, astero-astero komentario berdinak egiten dituen: “puf! atzoko atala? kaka zaharra! liburuan beste 3 pertsonaia azaltzen dira eta, gainera, ez zuen esaldi hori esaten, eta gainera ...” Nahikoa! Berdin zait liburuan zer gertatzen den! Berriz errepikatuko dut: BERDIN ZAIT LIBURUAN ZER GERTATZEN DEN! Telesaila ikusten ari naiz, eta istorioa modu honetan bizi eta sentitu nahi dut. Gauza asko eta asko galtzen ari naizela liburu ez irakurtzegatik? ziur asko bai, baina nik erabakiko dut irakurri edo ez. Istorio bat kontatzeko bi modu desberdin daude eta horien aukera nik egingo dut.


Hori dela eta, 11 pelikulaz osatutako zerrendatxo batekin nator. Pelikula hauek oinarrian dituzten liburuak baino hobeak dira, nire ustez; elementu batzuk ez baititugu orrien artean aurkituko:

Ados zaude Gaizka Izagirrek esaten duenarekin? Egin komentario bat, idatziz, haren artikuluari erantzuteko. Zein ordenatan ikustea edo irakurtzea gomendatuko zenuke, lehenbizi liburu eta gero filma? Alderantziz? Idatzi zure iritzia eta arrazoiren bat eman.



## Hunkituta irten naiz

Irakurri film hauen balorazioak eta lotu nor bere kartelarekin. Ondoren erabaki zein film ikustera joango zinatekeen.



«Euria, heriotza eta alzheimerra, hainbeste osagai batera ikustea ez nuen espero»

«Emakumezko aktoreak, **bikainak**»

«Eguneroko bizimoduan gerta litezkeen egoera batzuk islatzen ditu»

«**Erromantikoa da**, eta irudimena eta zentzu guztiak erabili behar dira»



«Hunkituta atera naiz zinema-aretoetik. Ez nuen aspaldian hainbeste gozatu»

«**Ederra iruditu** zait, ederra iruditu zaigu elkarrekin joan garen guztioi»

«**Goxoa, sakona, arina, tristea, alaia...** la etengabe irribarrea ahoan, tarte batzuetan korapiloa eztarrian»

«**Irudia, giroa, istorioa... oso ongi dago dena.** Pertsonen arteko sentimenduak lantzen dira»



«Ez nuen espero pelikula hain tristea izatea» .

«**Oso pelikula hunkigarria da, baina ze gogorra izan zen mutilaren bizitza!**».

«Euskal Herriko gurasoen eta semeen arteko harremana, baserria, Ameriketara joateko gogo... Oso ondo islatu dute dena».

«**Oso oso ondo egin dute biek: anaiaren rola oso landua iruditu zait**»



«**Topikoz jositako gidoia du, korapilatua eta akzio arritmikoa** oztokatzen duten elipsi dorpeekin (...)

**Elkarrizketa lotsagarriak** dira nagusi (...) Hain da artifiziala!

«**Harri-kartoizko materialekin** eraikia dirudi»

«Hiru familia, hiruki sentimental bat eta harri madarikatu bat, horiek dira autoreak **maisuki lotzen jakin dituen osagarriak** (...)

**Kronika emozional sentibera, eder, bero eta mingarri** honek behar duen erritmoa ekartzen du Bingen Mendizabalen **soinu-banda bikainak**».

Aztertu testu hauetako **adjektiboak** eta multzokatu esparru hauetan:

Istoria	Triste Sakona Luzea	Bikaina Ona Txarra
Pelikula	Laburra Gogorra Goxoa	Eskasa Entretenigarria Hunkigarria
Aktoreak	Erromantikoa Motela Bizia	Alaia Sinesgarria

Azaldu ikusi dituzun trailerretatik zein aukeratu duzun eta zergatik.

## Ez ezazu galdu film hau

Idatzi gutun bat zure lagun bati aukeratu duzun film edo liburu bat ikusi/irakurtzeko gomendioa eginez. Hemen duzu adibide bat.

*Iepa, Josu!*

*Zer moduz Parísen? Masterra bukatzen jada, ezta?*

*Hemen, irístear da Zinemaldia. Euskarazko film bat guztien ahotan dabil aurten!*

*"Amama" da filmaren izenburua, eta Saíl Ofizialean lehiatuko da. Ikustera joan behar genuke. Asier Altuna da zuzendaria, "Bertsolari" film luzea zuzendu zuena. Gizon horrek film onak egiten ditu, ia beti.*

*"Amama" fikziozko lehen filma da berarentzat. Zíur nago kalitate onekoa izango dela; lan egíten duten aktoreak ikusi besterik ez dago: Kandido Uranga, Klara Badiola, Iraía Elías... Eta gaia, berriz, oso geurea da. Baserría ulertzeko bi modu agertzen díra filmean, eta talka egíten dute. Belaunaldi ezberdínak, badakízu.*

*Etorrí hílaren 21erako, egun horretan estreínatzen da-eta. Anímatu, eta elkarrekín joango gara ikustera! Laster arte, parístar!*

*Iñigo*